
 **berde-berdea**



K L I M A A L D A K E T A

IKASLEAREN
GALDERAK



gizarte ekintza

K L I M A
A L D A K E T A

Aldaketa Klimatikoa : Galderak

1. Egun eguzkitsu batean, hauetako zein lekutan sumatzen da berotegi efektua?
 - ☐ Hondartzan.
 - ☐ Auto itxi batean.
 - ☐ Autobus baten lhes hodiaren ondoan.
2. Gauza bera al dira berotegi efektua eta aldaketa klimatikoa?
 - ☐ Bai, izena baizik ez da desberdina.
 - ☐ Ez, ez, lehenak bigarrena sortzen du.
 - ☐ Ez, berotegi efektua handitzeak eragiten du aldaketa klimatikoa.
3. Aldaketa klimatikoa ...
 - ☐ Orain gutxiko kontua da.
 - ☐ Kontu zaharra da, betikoa, eta, beraz, ez dago zertan kezkatu.
 - ☐ Oso bizkor gertatzen ari da gaur egun, gizakiak eragindako etengabeko gas isurien ondoriozko berotegi efektuak eraginda.
4. Frantziako adituen esanetan, Pirinioetako eski pistak elurrik gabe geratuko dira...
 - ☐ Hamar urteren buruan.
 - ☐ 40 urteren buruan.
 - ☐ Hori esatea ere! Berdin jarraituko dute.
5. Aldaketa klimatikoa dela eta, oso entzutetsu bihurtu da "Majuroko atoloia". Ba al dakizu zergatik?
 - ☐ Desizozte handiak gertatuko direlako atoloi honetan.
 - ☐ Han dagoelako klima aldaketa aztertzaileen egoitza nagusia.
 - ☐ Itsasoaren balizko igoerak luraren %80 bereganatuko duelako.
6. Nola handitzen du berotegi efektua giza jarduerak?
 - ☐ Landareentzako berotegiak eginez.
 - ☐ Izotz pistak eta eur kanoiak jarriz.
 - ☐ CO₂ sortuz errekontzaren bidez.

Aldaketa Klimatikoa : Galderak

7. CO₂a handitu ahala, tenperaturak gora egiten du. Nola egingo diogu aurre horri?
- ☐ O. Basoak eta zuhaitzak babestuz.
 - ☐ O. Ez dago ezeri aurre egin beharrik, CO₂ak ez baitu zerikusirik tenperatura aldaketarekin
 - ☐ O. Geldi egotea izango da onena, AEBk Kiotoko Protokoloa onartu arte.
8. Hauetako zein sigla eta izen lotzen dituzu aldaketa klimatikoa gutxitzeko ekimen batekin?
- ☐ O. NBE – AEB.
 - ☐ O. IPCC – Kyoto.
 - ☐ O. FIFA – Suitza.
9. Jakina da gure jarduerak askok sortzen dutela CO₂a, baina, zein dira familia baten eguneroko bizitzan gehien sortzen dutenak?
- ☐ O. Etxe-tresnak: garbigailuak, hozkailuak, ordenagailuak...
 - ☐ O. Autoak eta berogailuak.
 - ☐ O. Berogailuak eta aire girotuak.
10. Zein da ibilgailurik azkarrena hiri batean 3 km egiteko?
- ☐ O. Autobusa.
 - ☐ O. Autoa.
 - ☐ O. Bizikleta.

Aldaketa Klimatikoa : 5 galdera gehiago

1. Kyotoko Protokoloak berotegi efektuko gas-isuria gutxitzea behartzen ditu hainbat herrialde. Ba al dakizu azken urteotan gutxitu dugun ala ez?
 - O. Bai, apurka-apurka ari gara, baina aurrera goaz.
 - O. Ezta pentsa ere; gero eta gehiago kutsatzen dugu.
 - O. Guk, Euskalherrian, ez dugu bete beharrik.
2. Kyoton proposaturiko neurri haueetatik, zein ez litzateke eragingarria Euskadin?
 - O. Autoa gutxiago erabiltzea.
 - O. Basoak ugaltzea, horiek CO₂a xurgatuko bailukete.
 - O. Etxeko berokuntza eta aire girotuaren erabilera gutxitzea.
3. "Ice Age" marrazki bizidunen pelikulan, lurrean gertaturiko azken glaziazioa islatzen da. Noiz gertatu zen?
 - O. Duela 500 urte inguru.
 - O. Duela 4.000 urte.
 - O. Duela 20.000 urte.
4. Japongo gobernuak aholku bixi bat eman die langileei Kyotoko akordioa betetze aldera. Zein?
 - O. Metroa gehiago erabiltzea.
 - O. Udan, gorbata eta txaketa kentzea laneko jantzietatik.
 - O. Internet ez erabiltzea lanorduetan.
5. CO₂az gain, CH₄ (metanoa) da berotegi efektua areagotzen duen gasetarikoa bat. Zeintzuk dira gas honen igorle nagusiak?
 - O. Hegazkinak eta sateliteak.
 - O. Behien korrokadak, gizakien p...errak eta arroz-soroak.
 - O. Industriak.